

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2009.06.30**

Tolosako Udaletxean, 2009ko ekainaren 30ean, goizeko 8retan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Jokin Bildarratz Sorron, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeke udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 8:00 horas del día 30 de junio de 2009, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Jokin Bildarratz Sorron, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Jokin Bildarratz Sorron

Bertaratutako zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal  
Jose Andueza Oyarzabal  
Ainhoa Etxeberria Aranburu  
Jokin Azkue Arrastoa  
Yurre Peñagaricano Zubeldia  
Jon Aldazabal Etxeberria

Jose Agustin Arrieta Eguiguren  
Aitzol Arocena Zufiria  
Onintza Lasa Arteaga  
Andoni Iturzaeta Arbillaga  
Oscar Hugo Renedo Nieto  
Angel Bernardo Yañez Ares

Ez bertaratutakoak:

Jose Miguel Gomez Elossegui  
Jose Luis Vilanova Alonso  
Enrique Torquemada Sanchez

Behin-behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

### **Eguneko gai zerrenda**

### **Orden del día**

- |   |  |
|---|--|
| 1.- Ondorengo aktak onartzea:   | 1.- Aprobación de las siguientes actas:  |
| 2009ko maiatzaren 26ko Osoko Bilkurakoa.  | Sesión Ordinaria del 26 de mayo de 2009.   |
| 2009ko ekainaren 5eko Aparteko Osoko Bilkurakoa.  | Sesión Extraordinaria del 5 de junio de 2009.  |
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:   | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:   |
| 2009ko maiatzaren 20tik ekainaren 25era (986/2009- 1295/2009).  | Del 20 de mayo al 25 de junio de 2009 (986/2009-1295/2009).  |
| 3.- EAK aurkeztutako idatziaren berri ematea (zinegotzi batek alderdia utzi egin duela eta adskribitu gabeko zinegotzi gisara | 3.- Dar cuenta del escrito presentado por EA (abandono de la formación por parte de un concejal, y consideración del mismo |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.06.30

- hartzea). como concejal no adscrito).
- 4.- EAko zinegotzi batek kargua utzi izanaren berri ematea. 4.- Dar cuenta de la renuncia de un concejal de EA.
- 5.- 2009/1284 Dekretuaren berri ematea (batzordekide baten ordezkapena Giza Baliabideak eta Udal Antolaketa batzordean). 5.- Dar cuenta del Decreto 2009/1284 (sustitución de un vocal en la Comisión de Recursos Humanos y Organización municipal).
- 6.-2009-2012 epealdirako plan ekonomiko-finantzieroa onartzea. 6.- Aprobación del Plan económico-financiero del periodo 2009-2012.
- 7.- Galde-erreguak. 7.- Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko: A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo aktak onartzea:**

2009ko maiatzaren 26ko Osoko Bilkurakoa.  
2009ko ekainaren 5eko Aparteko Osoko Bilkurakoa.

**1.- Aprobación de las siguientes actas:**

Sesión Ordinaria del 26 de mayo de 2009.  
Sesión Extraordinaria del 5 de junio de 2009.

Ondoren, izenburuan aipatutako aktak, aho batez, **onartu** dira.

**2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

2009ko maiatzaren 20tik ekainaren 25era (986/2009- 1295/2009).

**2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

Del 20 de mayo al 25 de junio de 2009 (986/2009-1295/2009).

Alkatetzak, 2009ko maiatzaren 20tik ekainaren 25era bitartean (986/2009-1295/2009) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei, eta Udalbaskideak jakinaren ganean geratu dira.

**3.- EAk aurkeztutako idatziaren berri ematea (zinegotzi batek alderdia utzi egin duela eta adskribitu gabeko zinegotzi gisara hartzea).**

**3.- Dar cuenta del escrito presentado por EA (abandono de la formación por parte de un concejal, y consideración del mismo como concejal no adscrito).**

... Onintza Lasa Arteaga, EA: "EAren izenean bidaliko dugu gutun bat; bertan definituko ditugu erantzunkizunen kalkuluak eta adskritoa ez den zinegotzi horren eremuak eta erantzukizunak nola egin. Tolosako herriaren aurrean bai adierazi nahiko nuela EAK bere erantzukizunekin orain arte bezala jarraituko duela, eta legeak eta transfugismoaren kontrako paktuak esaten duen bezala, ezingo

2009.06.30

*du hainbat eskubide izan zinegotzi bezala, zehaztu beharko dira. Legedi bat badago, eta hori betetzea eskatzen dugu. Eta lasaitasuna eman EAren konfidantza jarri zutenarengan”*

- ... Andoni Iturzaeta Arbillaga: *“Lehendabizi, forma asunto bat. Hemen aurkeztu den idatzian esaten da EA abandonatu dudala. Nik dakidala ez dut idatziz ezer aurkeztu, gogoaren ondorioz bada zinegotzi bat izan beharren bi garelako, Jose Miguel Gomez Elosegui ere garbi azaldu duelako nik azaldutako gogo bera. Egia da pertsona batek ordezkari lortzeko hauteskundeetan alderdi bat behar duela, baina egia da alderdiak hauteskundeetan ordezkari lortzeko pertsonak behar dituela. Urtetan jende asko aritu gera lanean EAren. Iraingarria iruditzen zait transfugismoa bezalako kontzeptu bat ahoan ibiltzea, normalean transfugismoak bideratzen du Gobernu aldaketa edo indarrak alde batera edo bestera jartzea. Hemen ez gera ari transfugismotaz. Ni ez naiz transfuga sentitzen. Tolosan hainbat afiliatuek harturiko erabakia da. Horregatik, transfugismotaz hitz egitea lekuz kanpo dago. Guk bagenekien erabaki zaila zela; batetik urtetan zehar gurekin lanean aritu diren alderdikideek harremana gaiztotzea izango zela. Banekien, pertsonalki, erabaki honek ondorioak izango zituela, eta erosoago izango zela nengoen bezala jarraitzea, baina erabaki ideologikoa da.*

*Bukatzeke, nik dakidala, EAri dagokiona izango litzateke despatxua, enpresetan parte hartzeko eskubidea; baina gaur arte kudeatutako esparruak edo dedikazioa alderdi politiko baten ondorioa dira, EA eta EAJ alderdien akordioa. Akordio berri bat bilatu beharko da, eta nik, Alkardideko ordezkari gisa, jorratu beharko ditudanak. Azpimarratu nahi dut gogorra dela erabaki hau hartzea. Gogorra da alderdikideekin puskatzea, baino garrantzitsuena norberarekin leiala izatea da.”*

- ... Alkatea: *“Bere garaian eszizio bat sufritu genuen, eta badakizkigu horren ondorioak, eta badakigu zer den hori. Gure irizpidea legeak markatzen duen bidea jarraitzea izango da.”*

- ... Onintza Lasa Arteaga: *“Pleno honetan ez dut “saña” gehiegi sartu nahi, ez diot publikotasunik eman nahi. Gomendioak ematea ondo dago, baina hau ez da momentua. Beti eman izan dira gauzak naturaltasunez, legearen barruan. Iraina ez da gure estiloa, bai aldiz errespetua, guk horrela jarraituko dugu. Baina bai gustatuko litzaidake argitzea nola geratuko diren gauzak.”*

- ... Andoni Iturzaeta Arbillaga: *“Nik ez daukat problemik errespetuz aritzeko. Ideologikoki gertu daduen bi alderdiko ika-mikak lekuz kanpo daude. Baina balio ez duena da transfugismoaz jardutzea, zientzia politiko bezala honela ezin delako interpretatu, jakinda orain dela urte batzuk, zu geratzen zeran alderdian, guk orain hartu behar dugun erabaki berdina hartu zuelako eta inork ez ziolako zilegitasun ideologikoa ukatu. Hurrengo plenoan jarraituko dugu gai honekin.”*

Onintza Lasa Arteaga zinegotziari erantzunez, behin-behineko idazkariak esan du erabakiak suposatzen dituen ondorioak akordio konkretuetan gauzatzuz joango direla.

Parte hartzeak bukatzeko Andoni Iturzaeta Arbillagak esan du egingo duen jarduera, hemendik aurrera Alkardidearen izenean egingo dituela, eta eskertuko lukela guzti hau pertsona zibilizatuek bezela emateko.

Beraz, Plenoko kideak jakinarene gainean gelditu dira Andoni Iturzaeta Arbillaga adskribitu gabeko zinegotzi gisara hartuko dela.

2009.06.30

**4.- EAKo zinegotzi batek kargua utzi izanaren berri ematea.**      **4.- Dar cuenta de la renuncia de un concejal de EA.**

El concejal del grupo Eusko Alkartasuna, Jose Miguel Gomez Elosegui, presenta mediante el correspondiente escrito, su dimisión del cargo de concejal del Ayuntamiento de Tolosa, y considerando lo dispuesto por el artículo 182 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, el Pleno de la Corporación municipal

Eusko Alkartasuna taldearen zinegotzia den Jose Miguel Gomez Elosegik karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udaltzako honako hau

**ACUERDA:**

**ERABAKI DU:**

**Primero.-** Dar cuenta de la dimisión del cargo de concejal, por el grupo político Eusko Alkartasuna, presentada por Jose Miguel Gomez Elosegui.

**Lehen.-** Eusko Alkartasuna taldeko Jose Miguel Gomez Elosegui zinegotzi karguari uko egin diola kontu ematea.

**Segundo.-** Solicitar a la Junta Electoral Central que designe al candidato de Eusko Alkartasuna que corresponda para que desempeñe el cargo de concejal.

**Bigarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea dagokion hautagaiari zinegotzi kargua eman diezaiola.

**Tercero.-** Notificar este acuerdo a la junta Electoral Central.

**Hirugarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

Puntu hau bukatzeko, Alkateak eskerrak ematen dizkio *“herri honekiko egin duen lanarengatik. Pertsonalki, eskertu nahi nuen, baina ez da posible izan. Izango dugu bestea aukera bat. Sei urtez lanean aritu delako herri honen aurrean.”*

**5.- 2009/1284 Dekretuaren berri ematea (batzordekide baten ordezkapena Giza Baliabideak eta Udal Antolaketa batzordean).**      **5.- Dar cuenta del Decreto 2009/1284 (sustitución de un vocal en la Comisión de Recursos Humanos y Organización municipal).**

Behin-behineko Idazkariak 1426/2007 dekretuaren berri eman du. Honek honela dio:

*“Jokin Bildarratz Sorron Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana.*

*2007ko uztailaren 20an egindako aparteko osoko bilkuran, besteak beste, batzorde informatiboen konposaketa onartu zen.*

*Giza Baliabideak eta Udal Organizazio Batzordeko EAJko ordezkari bezala Jokin Azkue Arrastoa izendatu zen.*

*2009ko ekainaren 23an, aipatutako zinegotziak, idatziz azaldu du kargua uzten duela eta alkateari proposatzen dio bere ordezkari Aitzol Arocena Zufiria izendatzea.*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.06.30

*Hau dena kontutan izanik, eta ikusirik Erakunde Lokaleko Organizazio Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/86 errege Dekretuaren 38 eta 124.2 artikulua*

**ERABAKI DU:**

**Lehen:** *Giza Baliabideak eta Udal Organizazioa Batzordeko kide Aitzol Arocena Zufiria izendatzea Jokin Azkue Arrastoaren orde.*

**Bigarren:** *Ebazpen honen berri hurrengo Plenoan ematea."*

Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

**6.-2009-2012 epealdirako plan ekonomiko-finantzieroa onartzea.**

**6.-Aprobación del Plan económico-financiero del periodo 2009-2012.**

Tolosako Udala, Gipuzkoako Diputazioaren aurrean, Erretengibel S.A. udal enpresari hiru kreditu konturen abal eragiketa finantzieroa bideratzen ari zaio, 3.168.000 €-ko kopurukoa.

El Ayuntamiento de Tolosa está tramitando ante la Diputación de Gipuzkoa una operación financiera de aval a la empresa municipal Erretengibel S.A. de tres cuentas de crédito por un importe total de 3.168.000 €.

Halaber, Tolosako Udalak, aldez aurreko prestapen, azterlan eta eztabaidekin, 2008ko abenduaren 30eko Osoko Bilkuran, 2009ko aurrekontua onartu zuen, aurrekontuko mentsarekin, Nazio eta Herrialde Kontuen Sistema Europearraren (SEC-95) terminoetan. Ondorioz, plan ekonomiko-finantzieroa egin behar da, Aurrekontuen Egonkortasunaren 18/2001 Legeko 22. artikulua esaten duen bezala. Plan honek ondorengo baldintzak bete behar ditu:

Asimismo, el Ayuntamiento de Tolosa, previa confección, estudio y debate, en sesión plenaria celebrada el 30 de diciembre de 2008, acordó aprobar el Presupuesto General para el ejercicio 2009, en situación de déficit, en términos del Sistema Europeo de Cuentas Nacionales y Regionales (SEC-95). En consecuencia se debe elaborar un plan económico-financiero, en cumplimiento de lo establecido por el artículo 22 de la Ley 18/2001 de Estabilidad Presupuestaria. Dicho plan ha de reunir los siguientes requisitos:

Mentsa azaldu eta ondorengo hiru hilabeteetan egin behar da plana eta Osoko Bilkurak onartu beharko du.

El plan ha de ser elaborado en el plazo de los tres meses siguientes a la aparición del déficit y será sometido a la aprobación del Pleno de la Corporación.

Hiru jarduenaldietan desoreka egoeraren desagertzea azaldu beharko du planak.

El plan habrá de verificar la desaparición en tres ejercicios de la situación de desequilibrio.

Horretan oinarrituz, eta ikusita Ogasun Batzordeak jaulkitako aldeko diktamena, Udaltzakoak, aho batez,

En virtud de ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

**ERABAKI DU:**

**ACUERDA:**

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.06.30

**Lehen.-** Onartzea plan ekonomiko-finantzieroa, ondorengo hiru atalekin:

- 1.- Kontuhartzailearen txostena
- 2.- Alkatearen txostena
- 3.-2009-2012 epealdirako ondorengo aurrekontuaren eszenatokia.

**Primero.-** Aprobar el presente plan económico-financiero que consta de tres apartados:

- 1.-Informe del Interventor
- 2.-Memoria del Alcalde
- 3.-El siguiente escenario presupuestario del periodo 2009-2012.

IMPORTES POR CAPITULOS	Año Base		Variaciones anuales	
	2009	2010	2011	2012
<b>CAPITULOS DE INGRESOS</b>				
1. Impuestos Directos	4.470.000,00	4.462.000,00	4.490.000,00	4.650.000,00
2. Impuestos indirectos	200.000,00	200.000,00	200.000,00	400.000,00
3. Tasas y Otros ingresos	3.559.712,00	3.403.000,00	3.452.000,00	3.637.000,00
4. Transferencias corrientes	11.074.065,00	10.560.000,00	10.870.000,00	11.191.000,00
5. Ingresos patrimoniales	1.033.231,00	853.000,00	675.000,00	700.000,00
6. Enajenación de inversiones reales	1.047.545,00	0,00	0,00	0,00
7. Transferencias de capital	7.062.158,00	507.000,00	507.000,00	7.000,00
8. Activos financieros	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasivos financieros	1.900.350,00	0,00	0,00	0,00
<b>TOTAL INGRESOS</b>	<b>30.347.061,00</b>	<b>19.985.000,00</b>	<b>20.194.000,00</b>	<b>20.585.000,00</b>

## OBLIGACIONES RECONOCIDAS

<b>CAPITULOS DE GASTOS</b>				
1. Gastos de personal	7.903.955,00	7.624.000,00	7.738.360,00	7.893.125,00
2. Gastos en bienes ctes y servicios	8.596.703,00	7.360.000,00	7.396.800,00	7.433.000,00
3. Gastos financieros	343.987,00	332.989,00	315.473,00	297.438,00
4. Transferencias corrientes	3.521.713,00	2.936.331,00	2.936.331,00	2.936.331,00
6. Inversiones reales	14.904.753,00	700.000,00	758.080,00	800.000,00
7. Transferencias de capital	420.000,00	400.000,00	400.000,00	400.000,00
8. Activos financieros	205.200,00	0,00	0,00	0,00
9. Pasivos financieros	619.151,00	631.680,00	648.956,00	825.106,00
<b>TOTAL GASTOS</b>	<b>36.515.462,00</b>	<b>19.985.000,00</b>	<b>20.194.000,00</b>	<b>20.585.000,00</b>

**Bigarren.-** Erabaki honen berri Kontuhartzailetza departamentuari ematea.

**Segundo.-** Dar cuenta de este acuerdo al departamento de Intervención.

7.- Galde-erreguak.7.- Ruegos y preguntas.

Batzarrari bukaera emateko, Alkateak Jon Aldazabal Etxeberria eta Andoni Iturzaeta Arbillaga zoriondu ditu *"aurreko plenotik hona hiru tolosar gehio dauzkagu eta"*.

Besterik gabe, goizeko zortzi t'erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, behin-behineko Idarazkia naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la mañana, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario Acctl., certifico.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA